



Ikastetxe

Hezkuntza

Proiektua



AURKIBIDEA

Aurkibidea.....	3
Errealitate bati erantzuten diogu.....	4
Kalitatezko hezkuntza baten aldeko hautua.....	5
Ebanjelizazioaren aldeko hautua.....	6
Gizartea eraldatzearen aldeko hautua.....	8
Gizartea eraldatzearen aldeko hautua.....	9
Gure proposamena dagoeneko errealitate bihurtzearen aldeko hautua.....	11
Sarean ikasten duen erakunde baten aldeko hautua.....	13
Hezitzaile eskolapioaren identitate ezaugarriak.....	14
Eskola antolaketa.....	15
Ikastetxeko Proiektu eta Dokumentuak.....	16

Errealitate bati erantzuten diogu

Duela lau mende Jose Kalasanzek egin zuen moduan eskolapioek orain ere edozein tokitan suertatzen zaigun errealitatea Jainkoaren dei bezala hartzen dugu. Dei hori presente agertzen zaigu haur eta gazteen egoeran, batez ere pobreengan.

Horregatik gure ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuak alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Haur eta neska-mutil gazteen premiak
- Familien amets eta helburuak
- Gizartearen eskaerak
- Elizak eman digun misioa

Errealitateari erantzuteko dugun modua gure fundatzailearen intuizioa: "Pietatea eta Letrak gizartea eraldatzeko" etengabe gaurkotzean datza, hau da, hezkuntzarekin ebanjelizatzen dugu errealitatea eraldatzeko.

Hauxe dugu amets, gure ikastetxeak, zati batean hitzarmenaren bidez finantzatuak, ikasle, familia, gizarte ingurune eta tokiko Elizarentzat funtsezko erreferentzia izan daitezela alderdi hauetan: hezkuntzan eta haur eta gazteen akonpainamenduan; justizia, bake eta elkartasunaren konpromisoan, eta Elizan txertatutako komunitate biziak sortzean.



Kalitatezko hezkuntza baten aldeko hautua

Kalitatezko hezkuntza-proposamen baten erronka nagusia haur eta gazteen prestakuntza integrala da. Erronka horri egoki erantzuteko jakintzen ikasketan laguntzea bezain garrantzitsua da ikasleek beren identitatea eraikitzekeo egiten duten prozesuan akonpainamendu bide errealak sortzea.

- a. Gure ikastetxeetan hurrek transmititzen zaizkien edukiak ikasi baino gehiago kanpoan jasotzen duten proposamen uholdea ordenatu eta interpretatzen dute eta batez ere poliki-poliki izateko, pentsatzeko, ekiteko, erlazionatzeko eta konprometitzeko modu bat prestatuz joaten dira (ebanjelioaren balioekin, bere familiak egin dituen eta geroago libreki haiek ere egingo dituzten hautuekin koherentea den modu bat).
- b. Gure gelak gazteentzat egiazko behatokiak dira. Han gertatzen zaienaren eta haien inguruan gertatzen denaren bertsio propioa eraiki dezakete, halako moldez non informazio landuari, beren lagunen esperientzieko errespetuzko kontrasteari eta irakasleen esku hartzeari esker ikasketak propioak egin eta beren lekua, zerumugak eta bokazioa aurkitzen baitituzte.
- c. Beraz, gure irakasleak transmititu behar dituzten ezagutza batzuen eramaileak izateaz gain ikasleentzat ikasteko aukeren erraztaileak, laguntzaile hurbilak eta erreferentzia biziak dira. Garrantzi berezia dute irakasle tutoreek, zeinak Orientabide Departamentuarekin batera lehenik eta behin ikasle bakoitzaren akonpainamenduz arduratzen baitira.
- d. Gure gizartearen pluraltasunak eta ikuspuntu guztietatik gure hurrek ordezkatzen duten aniztasunak, konpondu behar den arazo bat izan beharrean, guretzat aukera pedagogiko bat eta arreta pertsonalizatzeko exijentzia bat suposatzen dute, batez ere edozein egoeratik ere gehien behar dutenei esku emateko eskaera bat: aniztasunari erantzuteko arreta-plana, errefortzuak, eskola laguntzak eta prestakuntza ibilbideak.
- e. Hauek dira eskaintzen dugun kalitatearen garantia edo bermea: irakasleen talde-lana proiektu, programazio eta irizpide konpartituei jarraituz antolatua; edukien koherentzia eta sekuentziazioa; erabiltzen diren metodologiaren etengabeko berrikustea, eta ikaslearen garapenari begirako ebaluazioa.
- f. Gure hezkuntza-ekintza jarraituak, zeina eskola-eguneko lanaldiaz eta ikastetxe-urteetatik haratago doan, eta proposamen extra akademiko askoren eta talde prozesu anitzen bidez gauzatzen den, gure Hezkuntza Proiektuaren balio erantsi bat suposatzen du. Jarraipen horrekin haur eta gazteei aukera errealak eskaintzea bilatzen dugu arlo guztietan beren prestakuntza osatzeko eta bizi diren gizartearekiko konpromisoan hasteko.



- g. Bizitza guztian barrena ikas gaitasuna garatzeko exigentzia gero eta handiagoari erantzunez ikasleei puntu hauek ematen saiatzen gara: gaur eskura dituzten teknologietarako sarbidea; hurbileko inguruan ditugun hizkuntzen ikasketak, eta baita dudarik gabe gertatuko zaizkien aldaketa teknologiko, sozial eta ekonomikoen aurrean ulermen, kritika eta egokitzapen ahalmen handiago bat ahalbidetuko dieten gaitasun-giltzen garapena ere.
- h. Horretarako irakasleen prestakuntza gure irakas praktikari buruz etengabe hausnartzeko prozesu bat bezala ulertzea funtsezkoa dela estimatzen dugu. Berrikuntza pedagogikoaren prozesu horrek ikasleek aurkezten dituzten premia berriei, gure hezkuntza ekintzaren helburuei eta etengabeko aldaketan dagoen gizarte baten dinamismoari egokitzeko gogoaren ondorio logikoa izan behar du.
- i. Familia giroaren eta eskolako hezkuntza prozesuen arteko koherentziak duen garrantzia ezagutzen dugunez gure familiei akonpainamendu integralaren konpromiso bat proposatzen diegu. Konpromiso horren bidez familiei ikastetxean sartuz gerotik eta beren kolaborazioarekin seme-alaben hezkuntza-prozesuaren garapen on batentzat beharrezkoak ikusten ditugun neurri guztiak hartuko ditugula bermea ematen diegu.



Ebanjelizazioaren aldeko hautua

Hauxe da gaur gure ikasle, familia eta gizarte osoari eman behar diegun Berri Ona: posiblea dela zorion beteko bizitza inguratzen gaituzten pertsonekin anaitasunezko harremanak eraikiz, kontsumoa bide bakar bezala aurkezten diguten proposamenetatik urrun.

Gure proposamena Nazaretoko Jesusek hasi eta bere Elizak bi mila urtean ibili duen bidea besterik ez da. Eta gure erantzukizuna gaur bide hori zabalik mantendu eta gure ikastetxeetatik askatasunean bide hori egin nahi dutenak (haur eta gazteak, familiak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, kolaboratzaileak, ikasle ohiak, auzokoak...) laguntzea. Gure ikastetxeak oso leku bereziak dira dei egiteko, (Ebanjelioa) aldarrikatzeko, bokazioa proposatzeko eta Elizan txertatzeko. Horretarako:

- a. Beren familian jaso ez dutenei lehen aldiz ematen diegu Jesusen pertsonaren berri.
- b. Gure eskaintzak (katekesirako prestakuntza eta kultura erlijiosoa) Jesusen pertsona eta haren proposamenak pertsona bakoitzarentzat zein gizartearentzat duen esanahia ezagutarazten ditu eta hor fede eta kultura arteko elkarrizketa sortzen da.
- c. Sorrarazi nahi dugun kristau esperientziaren pedagogia puntu hauetan oinarritzen da: barne-bizia sustatu, otoitza egin, sakramentuak eta liturgia bizi, kristau komunitatean partekatu eta mundu hobe baten aldeko konpromisoa hartzean. Holako fedea Jesusengan eta berak erakusten digun Jainko Aitarengan konfiantza eta atxikimendu pertsonal gisa ulertzen dugu eta Aitaren eskuetan gaudela jakinik konfiantza horri dagokion bizi jarrera dugu.
- d. Jesusen Berri Onari erantzun egoki gisa jarrera konprometitu bat proposatzen dugu puntu hauetan emana: bizimodu koherentea, besteekiko ardura zehatza eta prestasun eta erantzunkidetasuna Erreinua sortzeko.
- e. Ebanjelioko jarrerekin konparatzen gara gure bizimoduan eta eguneroko giroan eta bihotz berritze pertsonala bilatzen dugu ebanjelioko Gizaki Berria gugan ager dadin.
- f. Fedearen eta biziaren arteko koherentzia hezten dugu aukera pertsonal eta libre batetik.
- g. Ikasleak helduarora iritsi arte Jesusen ezagutzan eta segimenduan akonpainatzeko, bokazio propioaren aurkitzea ahalbidetzeko eta kristau komunitatean txertatzea posible egiteko prozesu luze bat (banaka eta taldeka) antolatzen dugu
- h. Behar diren baliabideak jartzen ditugu kristau bizipen hori taldean, komunitatean eta elizan elkarrekin partekatuz gizarteratzeko
- i. Gure ikastetxeak haur eta gazte pastorgintzako zentro gisa antolatzen ditugu beren estilo eta karisma propioarekin eta horretarako behar diren ondorio eta erantzukizun guztiekin.



Gizartea eraldatzearen aldeko hautua

Gure ikastetxeak egiazko erakunde soziokulturalak bezala irudikatzen ditugu, non ezagutza batzuk transmititzeaz gain, balio, arau eta jokaera batzuk bultzatzen baitira eta kultura birsortzeko eta gizarte aldaketarako behar diren banakako eta taldeko baldintzak sustatzen baitira.

- a. Ikastetxeak gure gizarte eta kultura errealitatean txertatuak daude, horregatik pertsona, talde eta erakundeen arteko harremanak arautzen dituzten mekanismoen azterketa kritiko bat bultzatzen dugu
- b. Zerumuga bezala Jainkoaren Erreinuko utopia dugu: anai-arreba arteko mundu bat non baliorik handiena pertsona bakoitza izango baita, eta itxaropena, justizia, bakea eta elkartasuna funtsezko irizpideak.
- c. Hautua egin dugu gizarte eta kultura eraldaketan eragiteko gure ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleen etorkizuneko konpromisoaren bitartez; baita ere gure inguruan ikusten ditugun premia nagusiei erantzuten dieten eta gizarte gizatiarrago batera hurbiltzen gaituzten ekintza eta keinu zehatzen garapenaren bitartez.
- d. Gure ustez konpromisoan eta balio jakin batzuetan hezteko modu bakarra haur eta gazteek esperientzia esanguratsuak izan ditzaten ibilbide eta bidexka zehatzak bultzatzea da. Eta horretarako bitarteko hauek ditugu: errealitatearen ezagutza zuzena, elkartasun kanpainak, auzolandegi solidarioak, kooperazio esperientziak...
- e. Gure gizartean ikusten ditugun sakabanaketa eta bazterketa eragiten dituzten joeren aurrean gure ikastetxeak elkarbizitzarako eta bitartekaritza kulturalerako eremuak dira, non aniztasuna aberastasun gisa antzematen baita ez zailtasun bezala, non sexu, gaitasun, kultura, hizkuntza eta erlijio aniztasuna bakean eta adostasunean desberdinen elkarbizitza egiteko aukera bat bezala hartzen baita, non senideago izango den etorkizuneko gizarte batekiko itxaropena sortzea ahalbidetzen baita.



Hezkuntza Komunitatearen parte hartzearen aldeko hautua

Gurea bezalako hezkuntza-proposamen bat ezin daiteke aurrera atera Hezkuntza Komunitatearen estamentu guztien ekarpenarekin ez bada. Legeek estamentu bakoitzari eskatzen dioten partaidetzaz gain, guk ikastetxeekin eta gure funtsezko hautuekin gradu desberdinetan pertsona inplikatu bakoitzaren ezagutza, onarpena eta identifikazioa eskatzen dituen partaidetza mota bat bultzatzen dugu.

- a. Hori posible izan dadin eta ikastetxeko estamentu eta pertsona bakoitzak bere interesek, bizi duen uneak eta indarrek ahalbidetzen dioten neurriraino konpromisoa har dezan, behar-beharrezkoa da ikastetxean egiazko bokazio kultura bat garatzea. Giro eta proposamen zehatz batzuk behar ditugu pertsona bakoitzak sentitu eta ikus dezan ikastetxearen proiektuari bere lan profesional edo boluntarioaren bidez egiten dion ekarpena balioetsia eta onartua dela. Behar dugu baita ere konpromiso handiagoa hartu nahi duenak behar diren ezagutza eta prestakuntza eta konpromisoa gauzatzeko bide errealak izan ditzan. Beti izan da gure erakundeen erronka bat pertsona bakoitzari dagokion lanpostua aurkitzea, profil, gaitasun eta aiurrien aniztasuna aberastasun gisa onartuz, inplikazio sakonagoaren proposamenak egin eta jasotzeko posibilitatea ontzat emanez eta geldialdi profesional eta pertsonala (lanpostu batean luze gelditzea) saihestuz.
- b. Ikasleak dira gure ikastetxeetako benetako protagonistak eta gure proposamenen jasotzaileak. Ikastetxeko hezkuntza proposamen desberdinetan parte hartzean, bai akademikoetan bai extra-akademikoetan, akonpainamendu bideak eta handitzeko aukerak eskaintzea ahalbidetzen digute. Adi adi egongo gara gure haur eta gazteen interes eta kezketara beren premiei ahalik eta hobekien erantzuteko eta eskolatik aterata ere akonpainamendu prozesuak eskaintzeko.
- c. Seme-alaben hezkuntzaren lehendabiziko arduradunak familiak dira. Gure hezkuntza proposamena onartzean egiteko horretan kolaboratzeko konpromisoa hartzen dute. Gure ikastetxeak eskaintzen dizkiegu erreferentziatzeko esparru bat izan daitezela haientzat beren seme-alaben hezkuntzako eremuan. Modu berean nahi dugu, elkartasuna benetan bizitzeko eta Elizan txertatzeko orduan, gure ikastetxeak familientzat erreferentzia bat izan daitezela. Horrela familiak gure proposamen hezitzaile eta ebanjelizatzailearen jasotzaile eta protagonista bihurtzen dira.



- d. Gure hezkuntza proposamena garatzeko oinarrizko eragileak gure ikastetxeetako irakasleak dira. Behar-beharrezkoa da bai irakasleek bai eremu extra akademikoaren hezitzaileek akonpainamendua izan dezatela beren hezkuntza egitekoan eta bokazio pedagogikoaren garapenean. Hezitzaileak identitate klabe batean prestatzea beharrezkoa iruditzen zaigu inplikatzeko modu zorrotzagoak proposatu nahi baditugu.
- e. Gure ikastetxeetan zabaltzen ari den proposamen bat Ordenako Laikoen Direktorioaren arabera Misio Konpartituan parte hartzea da. Horretara deituak daude ikastetxean inplikatua diren pertsona guztiak (familiak, hezitzaileak, administrazio eta zerbitzuko langileak, ikasle ohiak...), baldin beren hezkuntza lana kristau konpromisoaren zehaztapen bezala sentitzen badute. Gure erantzukizuna da bokazio horiek lagundu eta elikatzea gure Misioarekiko leialtasun handiagoan izan daitezen.
- f. Gure ikastetxeak ez dituzte kristauak bakarrik aurrera ateratzen, eta ez dira kristautzat bakarrik pentsatuak, baina Ebanjelioaren bideari askatasunetik atxikitzeko proposamena ezin da inola ere falta. Kristau Komunitate Eskolapioa da Ebanjelioari atxikitzeko proposamen horren egilea eta jasotzailea, zeren azken batean bera baita arduraduna ikastetxearen proiektuak leial euts diezaien haren funtsezko hautuei.



Gure proposamena dagoeneko errealitate bihurtzearen aldeko hautua

Proposamen batek ez du sinesgarritasunik ez bada lehenik adierazi eta defendatzen dutenen artean gauzatzen. Gure hezkuntza proposamen integrala aurrera eramateko dugun gogo biziak ikastetxeko alderdi desberdinen funtzionamendu koordinatu eta koherentea eskatzen du.

- a. Horretarako ezinbestekoa da ikastetxea tokian tokiko Presentzia Eskolapioaren bilgune gisa ulertzea: beraz komunitate erlijiosoak, Anaitasun Eskolapioa eta gainerako proiektu eskolapioak nahitaezko erreferentzia dira ikastetxeko hezkuntza lanarentzat. Komunitate erlijiosoek eta Anaitasunak ageriko egiten dute, hurbil eta eskuragarri, Jesusi jarraitzeko proposamena. Modu berean, Kristau Komunitate Eskolapioaren erdigunea direnez gero, Ikastetxeko Proiektuaren iraunkortasuna eta identitate karismatikoaren birsortzeko mekanismoak bermatzen dituzte. Mota guztietako proiektu eskolapioak (taldeen prozesuak, GKEak, parrokiak...) gure ikastetxeetako ikasle eta ikasle ohi gazteentzat leku hurbilak dira, non boluntario-lan eraginkorra gara dezakete eta ikastetxeko heziketaren balioen bizipena entseatu. Errealitatearen aniztasun horrek aberastasun handia ekartzen dio ikastetxeari eta baita presentzia eskolapio guztiari ere, zeren bermatzen baititu hazkunde pertsonala eta bokazioari buruzko galderak ahalbidetzen dituzten espazioak.
- b. Egiten dugun hezkuntza proposamenaren garrantziak eskola antolakuntza baten ahalbide estrukturalak gainditzen ditu. Horregatik erakunde bat, Itaka-Eskolapioak Fundazioa, martxan jartzeko lanean inplikatzeko gara. Ordenaren eta Senidegoaren arteko misio konpartituaren zehaztasun juridiko horrek bete-betean txertatua dago ikastetxean eta antolaketa eta legearen aldetik ikastetxeari lotuak dauden baina arrazoi askorengatik eskola baten logika gainditzen duten jardueren zati handiena sostengatzen ditu, holakoak dira: eskolako ordutegitik kanpoko jardueren proposamenak, kanpamentuak, ikasle ohiekiko lana, garapenerako GKE gisako funtzionamendua, kontzientziazio kanpainak, mugimendu eta sare sozialekiko lotura, kristau komunitaterako taldeen prozesuak... Badira, gure ikastetxeekin lotuta, beste elkarte eta klub batzuk jarduera extra-akademikoaren arlo batzuk hartzen dituztenak eta dudarik gabe ikastetxearentzat aberastasun bat direnak.



- c. Ikusten denez proposatzen dugun ikastetxe ereduak soberan gainditzen du eskola eremu tradizionala eta beste hezkuntza espazio batzuetara hedatzen du bere lana, non haur eta gazteek, beti hezitzaileen zaintzapean baina pareekin estuki elkarbizitzen eta autonomia handiagoa gozaten, beren nortasunaren osagai guztiak garatu, jarrera eta balio solidarioak barneratu, ohitura osasuntsuak jaso eta identitate orekatu bat eraiki baitezakete. Gure ikastetxeetan gelaz kanpoko topaketa hauentzako azpiegiturak aurreikusten ditugu: kirol zelaiak, pastoral gelak, gazte zentroak, elkarbizitzako etxeak...
- d. Hezitzaile boluntarioen talde eta espazio hauek aurrera eramaten dituzte ikasleen une ebolutiboan araberako hezkuntza proposamenak. Horrela gure ikastetxeak denbora osoan lan egiten duten zentro hezitzaileak bihurtzen dira eta gazteak, eta geroago ere helduarora iritsi arte, aisialdian laguntzea ahalbidetzen dute. Orduan beti izango dute misio eskolapioarekin lotuta jarraitzeko aukera: kolaboratzaile, hezitzaile, Anaitasunaren partaide, erlijioso bezala.
- e. Modu horretan, eskaintzen diren hezkuntza proposamenen aniztasunak gure ikastetxeak boluntarioen benetako eskolak bihurtzen ditu, beti baitago proposamen iraunkor bat: gurekin elkartzeko txikienen hezitzaile bezala edo kolaboratzaile gisa kanpaina eta ekintza puntualetan.



Sarean ikasten duen erakunde baten aldeko hautua

Elizak ematen digun Misioarekiko leialtasunean aurrera joan nahi badugu ahaleginak eta indarrak batu behar ditugu. Beste alde batetik, gaurko errealitate sozial eta kulturalak hain aldakorrek eta giza baliabide eta ahalmen materialak hain mugatuak direnean, proposatzen dugun ikastetxe ereduak gure ikastetxeak nahitaez ikasten duen sare modura antolatzea eskatzen du.

- a. Ikasten duen erakundea izatea gure garaiko eskaera bat da. Lehen inoiz ez ziren hain azkarrak izaten teknologia, gizarte eta kultur aldaketak. Orain erantzun behar ditugun erronkek lehen ez zituzten hain erantzun desberdinak eskatzen. Beraz gizartearen joera globalei, gure inguru hurbileko aldaketei, gazte kulturari, familien premiei, merkatuaren eskakizunei, bazterketaren aurpegi berriei adi egotea erronka bat da edozein erakunderentzat baina Elizako ikastetxe batentzat eskaera bat. Juan Pablo II.ak gazteei egin zien "goizeko begirale" izateko dei hura guretzat bokazio saihestezina da.
- b. Historia apur bat duen edozein erakundek inertziak ere funtzionatzen du, baina inertziak baino zerbait gehiagok gobernatu behar ditu gure ikastetxeak. Ikastetxe bakoitzak Plan Estrategiko bat, Presentzia Eskolapioaren Proiektuaren funtsezko zatia, izan behar du. Bertan modu proaktiboan epe ertainera lortu nahi diren helburuak azaltzen dira, behar den bezala hedatuak eta sekuentziatuak.
- c. Arrakastaren kudeaketa baten beste giltza bat talde lana da. Lidergo iraunkor bat, zeinen arabera pertsonak egiteko berriak hartuz doaz eta bitartean erantzukizun handiagoko funtzioak egiteko prestatzen baitira, nahitaezkoa da gure ikastetxeetan. Pertsona bakarreko lidergoak ez dira desiragarriak eta eraginkorrak badira ere hipoteka bat suposatzen dute edozein erakunderen etorkizunerako.
- d. Egin dugun kalitate osoaren aldeko hautuak (EFQM eredu) gure ikastetxeen kudeaketa eraginkor bat bermatzea ahalbidetzen digu, eta baita sarean funtzionatu eta horrela praktika onak elkarri trukatzea errazten duten prozesu, adierazle eta helburu komunak definitzea ere.
- e. Probintziako ekonomiaren izaera zentralizatuari dagokion inbertsio eta gastuen politika batek beti printzipio hauek bilatuko ditu: kalitate pedagogikoa, baliabideen optimizazioa eta ikastetxe bakoitzaren autosufizientzia, eta printzipio horien arabera zuzenduko da.
- f. Aukeratu dugun ikastetxeen kudeaketa probintzian Titulartasunaren jarduna bikoitza da, tokiko eta probintziako mailatan gauzatzen baita. Eredu honetan badago Ikastetxeen Ordezkaritza bat, zeinak ikastetxeen martxa bateratua sustatzeko ardura baitu arlo hauetan: titulartasuna, zuzendaritza, pedagogia, pastorgintza, antolakuntza, langileen kudeaketa eta ekonomia.
- g. Ikastetxe guztietan profil eta erantzukizun homologoak daude. Irakasle horiek talde probintzialak egiten dituzte eta talde horiek aldizka biltzen dira toki bakoitzean egiten duten lana bultzatzeko eta probintzia mailan koordinatzeko. Badira, beraz, Zuzendari titularrak, Zuzendari akademikoak, Koordinatzaile pedagogikoak, Pastorgintzako koordinatzaileak, Administratzaileak,...

Hezitzaile eskolapioaren identitate ezaugarriak

Hezkuntza proiektu hori garatzeko gure ikastetxeetan harekin identifikatuko diren hezitzaileak behar ditugu, duten hoberena beren lan profesional edo boluntariorik eman eta pertsona eta hezitzaile gisa hazteko prest daudenak. Gure klaustro eta hezkuntza taldeak pluralak dira eta aniztasun horretan datza gure hezkuntza arrakastaren giltzaren bat. Edozein kasutan, gure ikastetxeetan ez dira inoiz holako pertsonak faltako:

- Irakasleak izanik edo izan gabe, eremu, lan eta zerbitzu desberdinetatik gure ikastetxeen funtzionamendua ahalbidetu eta beren etsenplu eta ardurarekin hezten dutenak.
- Gaitasun akademiko ezagunaren hezitzaileak direnak eta beren ezagutza arloa eta etapa desberdinetan erakusteko eta ebaluatzeko giltza didaktikoak menperatzen dituztenak.
- Talde lanean jarduten ohituta daudenak eta eguneroko erronkei ikuspuntu askotatik heltzeko prest daudenak.
- Ikasle eta familiekiko hurbilak eta beren prestakuntza prozesuen eskaerekiko sentiberak direnak. Gure haur eta gazteen identitatea eraikitzean akonpainatzeko duten arduraz oso kontzientekak direnak.
- Beren praktikari buruzko hausnarketatik abiatua prestakuntza hartzeko prest daudenak eta berrikuntza eta hobekuntza profesionala egin ahal izateko irekiak direnak.
- Estilo eskolapioarekin identifikatuak daudenak eta beren ekintzaren erdigunean haur eta gazteen duintasuna eta interesak, batez ere arreta handiagoa behar dutenenak, jartzen dituztenak.
- Hezkuntzaren munduan Nazareteko Jesusen jarraitzaileak direnak eta Eliza berritzeko eta gizartea eraldatzeko premia konbentzituta daudenak.
- Ikastetxearen ekintza hezitzaile eta ebanjelizatzailearen erreferentzia den Kristau Komunitate Eskolapioaren partaide eraginkorrak direnak.

Hezitzaile eskolapioaren identitate ezaugarri horiek dira, aldi berean, gure ikastetxeetako hezkuntza lanean inplikatuak dauden pertsona guztiei zuzentzen diegun proposamena. Hezitzaile eskolapioaren identitateak dimentsio dinamiko bat du eta egokiak diren baliabideak erabiliz bizitza profesional guztian lantzen jarraitu daiteke: bere ebaluazioa, etengabeko prestakuntza lanbidearen eta nortasunaren arloetan eta "Identitate ikuspegitik" planaren prestakuntza ekimen desberdinak: irakasle berrien prestakuntza, klaustroen prestakuntza, hezitzaile eskolapioen kurtsoak, Misio konpartiturantzko ibilbidea, Misio konpartituaren taldeak, tokiko Kristau Komunitate Eskolapioan parte hartzea... Ikastetxe bakoitzeko Tokiko Titularitate Kontseiluak, Ikastetxeen Ordezkaritzarekin ados egonda, bere ustez egokiak diren eta nahi duten pertsonen ekimen horietan parte hartzea proposatuko die.



Eskola antolaketa

Eskola Calasanz Ikastetxeak 1966ko irailean ireki zituen bere ateak lehen aldiz, bertan derrigorrezko hezkuntza maila guztiak ematen dira: **Haur hezkuntzako 2. Zikloa eta Oinarrizko hezkuntza (Lehen hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza)**. Kurtso bakoitzean bi gela daude, eta kontratazioak eta hautaketak egiterako orduan, hezkuntza sailak markatzen dituen kontzertuko ratio eta zehaztasunak kontutan izaten ditu, baita ikastetxeak dituen beharrak eta interesak ere.

Horrekin batera **Haur Hezkuntzako lehen zikloa**, 0-2 urte, eskaintzen dugu, 2001ean baimendua. Gela hauetarako emandako baimena gelako 8, 13, eta 20 umeentzat dira. Maila honetako hezitzaileak aukeratzeko beraien titulaziotik at, kontutan izango da ikastetxeak dituen aukera pedagogikoak eta Proiektu Linguistikoak.

Halaber ikastetxeak baditu **Zereginak Ikasteko Gelak** Behar Bereziak dituzten ikasleentzat, 16-20 urte bitartean, gela kontzertatuak dira (lehenengo gela 1995-1996 ikasturtean hasi zen eta bigarren gela 2009an). Ikasle hauen antonimia bultzatzeko asmoarekin gelak bi ziklotan banatzen dira, lehena orokorragoa da, eta bigarrena lorezaintzari zuzendua dago. Bertako bi irakasle "Pedagogia Terapeutikan" lizentziatuak dira, eta beste bi Tailerretako Maisuak dira, guztiek bat egiten dute ikasle horien heziketan.

Ikastetxean ere badaude **Hezkuntza Bereziko** bi gela, bata lehen hezkuntzan eta bigarrena Bigarren hezkuntza. Orientabide departamentuaren barruan psikologo bat eta Hezkuntza Laguntzarako Teknikariak lan egiten dute bertan.

Lehen aipatu ditugun etapa bakoitzeko **Irakasleak** eta **Orientabide Departamentutik** kanpo, ikastetxean badaude beste hainbat talde heziketa aurrera eramaten dutenak modu koordinatu batean (baita sostengu moduan ere, idazkaritzakoek, administraziokoek egiten dutena). Lan egiteko modua talde-koordinatzaile-proiektu eskema izaten da eta nabarmendu dezakegu **Titulartasun taldea**, honek eskolapio estiloa mantentzen du eta titulartasunaren interesa, eta hauek beti daude harremanetan Eskolapioen Barrutiako Ikastetxeetarako Idazkariarekin, eta azken honen esku daude; **Zuzendaritza taldea**, honek ikastetxeak dituen helburuak kontutan izanik, ikastetxean burutuko diren aspektu guztiak koordinatuko dituenak; **Pedagogi taldea**, ekintza pedagogikoaren jarraipena eta hausnarketa egingo duena; **Pastoralgintza taldea** eskolako ekintzetan eta kanpo-eskola jardueretan animatzen eta koordinatzen dituena; **Kirol taldea**, akademikoki eta eskola-kanpo egingo diren kirol ekintzak koordinatuko dituena. **Barne Araudian** informazio gehiago agertzen da pertsonen antolaketa eta ikastetxeko taldeei buruz.

Ikastetxeak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk (jangela, eskola-kanpoko ekintzak, mediku aseguruua ...) ikasturte batetik bestera aldatu egiten dira, beraz, informazio guztia idazkaritzan eta web orrialdean aurkituko duzue.



Ikastetxeko Proiektu eta Dokumentuak

Ikastetxeko Proiektutik kanpo, badaude beste dokumentu batzuk eguneroko lana aurrera eramateko baliagarriak direnak. Ikastetxeko hainbat atal ulertzeko eta zehazteko, dokumentu horiek kontsultatu behar dira.

Barne araudia

Dokumentu honek helburu du antolaketa eta Zentroaren funtzionamendua arautzea eta Ikastetxearen Heziketa-Komunitatea eratzen duten guztien parte-hartzea bultzatzea.

Ikastetxeko Proiektu Kurrikulara

Helburu, metodo didaktikoak eta ebaluazioko eta orientazioko irizpideak jaso nahi ditu, **indarreko legezkotasunean**, gure **berezko esperientzian** eta gure **Heziketa-proiektuan** oinarritutakoak, gure behar soziokultural eta gure ikasleei egokituta, erantzun diezaioten lortu nahi dugun **pertsona modeloari**.

Proiektu honek gure lan pedagogikoa erraztuko digulakoan gaude eta heziketa-hobekuntzara eramango gaituela; ikasketa konstruktibista eta adierazgarria bultzatzea, gu berritzea eta pedagogikoki berritzea lagun diezagula eta gure **heziketa-modeloaren** funtsezko ezaugarriak egi bihurtuz.

Pastoralgintza Proiektua

Zentro bezala onartzen dugu Emaús Probintziaren Pastoralgintza Proiektua, **Pastoral-Taldeak** hemen bultzatuta. Dokumentu honek ebangelizazioaren aldeko jarduerak, bai eskolan, bai eskolaz kanpo, bideratzen du.

Kirol Proiektua

Dokumentu dinamikoa eta etorkizunari begira, ziurtatuko duena heziketa egoki bat ekintza fisiko guztietan, bai ikastetxeko ordutegian, bai kanpo egiten diren jarduerak guztietan, kontutan izanik ikastetxeak lortu nahi duen pertsona motarekin eta bat datorrena funtsezko balioekin.

Bizikidetzaren Proiektua

Bizikidetzaren Proiektuak ikastetxean giro egoki baten alde ausnarketak eta ekintzak bultzatzen ditu, baita bizikidetzarako beharrezkoak diren arauak eta gatazkak konpontzeko tresnak.

Hizkuntz Proiektua

Ikastetxeko **Hizkuntz Proiektuak** inguruko egoerari egokituta dago, eta aztertu eta berritu egite da bi ildo hauetan: inuruaren beharrak eta eskariak erantzun eta hizkuntz helburu egokiak lortzen ditugunaren bermatzea. Hori dela eta 2007 ikasturteetik aurrera bakarrik eskaintzen dugu B ereduak, nahiz eta oraindik A eta B ereduak elkarbizi dira ikastetxean.

IKT proiektua

Proiektu honen helburua, ikasleen (eta irakasleen) alfabetizazio digitala da, baita irakasleen kudeaketa jardueren produktibitatearen eraginkortasuna handitzea eta ikasleen hobetzea ere.

Plangintza Estrategikoa, Prozesuak eta Urteko Ekintzen Plana

Hobekuntzarako, gure gogoeta bultzatzeko eta gure zereginetan aurrerapena emateko lan egiten dugu hiru maila hauetan: alde batetik, funtzionamendu arrunta arautzen duten eta berrikusteko edo hobekuntza sistema proposatzen duten prozesuak (EFQM-a kudeaketa modeloaren arabera definituta); bestetik, lau urtez behin gure helburuak markatzen dizkigun landutako **Plan Estrategikoa**; eta azkenik, **Urteko Akzio Plana**, kurtso bakoitzean egin behar dena zehazten duena, noski beste biak honen osagai izanik.



Halaber, ikastexean garrantzitsu eta erreferentzia diren beste Eskolapioen Barrutiako dokumentuak, esparrua eta orientabide orokorrak ematen dizkigutenak. Nabarmentzen ditugu:

- Pastoral-proiektu
- Bokazio pastoral proiektua
- Misioaren antolaketa estatutua
- Administrazio-estatutua eta kudeaketa
- Eskolapioen presentziaren proiektua Gasteizen
- Eskolapioen misioan eta karisman parte hartze estatutua.
- Heziketa-proiektu markoa



Vitoria-Gasteiz
Eskolapioak

